ASTEASUKO USARRABI KIROLDEGIAN, KIROL ZERBITZUAK, INFORMAZIO ETA HARRERA EMATEKO ZERBITZUA PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-BALDINTZA PARTIKULARREN AGIRIA

PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES PARA LA CONTRATACIÓN POR PROCEDIMIENTO ABIERTO DE LA PRESTACIÓN DE DIVERSOS SERVICIOS DEPORTIVOS Y SERVICIO DE INFORMACIÓN Y ATENCIÓN AL PÚBLICO EN EL POLIDEPORTIVO USARRABI DE ASTEASU

ZERBITZU-KONTRATUA	CONTRATO DE SERVICIOS
Xedea: ASTEASUKO USARRABI KIROLDEGIAN, KIROL ZERBITZUAK, INFORMAZIO ETA HARRERA EMATEKO ZERBITZUA	**Objeto: DIVERSOS SERVICIOS DEPORTIVOS Y SERVICIO DE INFORMACIÓN Y ATENCIÓN AL PÚBLICO EN EL POLIDEPORTIVO USARRABI DE ASTEASU.**
Prozedura irekia Izapidetzea: ohikoa	**Procedimiento abierto Tramitación: ordinaria**
Kontratuaren xedeari dagokion CPV kodifikazioa: 92600000-7 (kirol zerbitzuak)	**Codificación CPV correspondiente al objeto del contrato: 92600000-7 Servicios deportivos.**

1. HELBURUA ETA KALIFIKAZIOA

1.1 Kontratuaren xedearen deskribapena

Kontratuaren xedea:

Kontratu honen xedea da Asteasuko Usarrabi kiroldegian kirol zerbitzuak, informazio eta harrera zerbitzuak ematea, baldintza teknikoen agirian zehaztutakoaren arabera (kontratu balioa izango du agiriak). Egin beharreko lan guztia ez da aurretik zehazten, beraz, udalak, kontratuak irauten duen denbora edo epe horren barruan, kontratistari adieraziko dizkion beharretara baldintzatuta dago.

Zer beharri erantzuten dion:

Kontratu honen helburua eta bete beharreko administrazio-beharra

1. OBJETO Y CALIFICACIÓN

1.1 Descripción del objeto del contrato

Objeto del contrato:

Constituye el objeto de éste contrato la prestación de diversos servicios deportivos y servicio de información y atención al público en el polideportivo Usarrabi de Asteasu, de conformidad con lo estipulado en el pliego de prescripciones técnicas que tendrá carácter contractual y cuya totalidad del trabajo a realizar no se determina de antemano, quedando, por tanto, subordinada su cuantificación a las necesidades que el Ayuntamiento manifieste a la contratista durante el plazo de duración del referido contrato.

Necesidad a satisfacer:

La finalidad del presente contrato y la necesidad a satisfacer es la de prestar el servicio público del polideportivo Usarrabi

SINAc25829f4-9c06-4f33-98ef-dd3fec4bf610

Asteasuko Usarrabi kiroldegiko zerbitzu publikoa eta udaleko Eskola Kirola programa ematea da - TAOLen 25.2.l) eta ETELen 17.1.19) artikuluak -, "Kirola eta kirol- instalazioak eta aisialdia okupatzea sustatzearekin" eta "kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabiltzen diren kirol ekipamenduak kudeatzea"-rekin lotuta.

Udalak ez du giza baliabiderik ez baliabide materialik zerbitzua emateko, eta, beraz, kontratatu egin behar da.

Definitutako kontratua zerbitzuetarako kontratu administratiboa da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituenak, 17. artikuluan zehazten duen moduan.

1.2 Kontratuaren xedea sortetan zatitzea

Kontratu honetarako, ez da sortarik zehaztu, espedientean arrazoitu denaren ildotik.

1.3 Kontratuaren xedearen identifikazio-kodeak

Kontratuaren xedeari dagokion CPV-2008 nomenklaturaren kodea: 92600000-7 (Kirol-zerbitzuak)

2.- HAUTAKETA- ETA ESLEIPEN-PROZEDURA

Prozedura irekian esleituko da kontratua, eta enpresaburu interesdun guztiek aurkez dezakete beren proposamena; baina

de Asteasu y del programa de Eskola Kirola municipal- artículos 25.2.l) de la LRBRL y 17.1.19) de la LILE relacionado con la "promoción del deporte e instalaciones deportivas y de ocupación del tiempo libre" y la "ordenación y promoción del deporte y de actividades deportivas y gestión de equipamientos deportivos de uso público".

El Ayuntamiento no dispone de medios personales ni materiales para prestar el servicio por lo que resulta necesario la contratación del mismo.

El contrato definido tiene la calificación de contrato administrativo de servicios, de acuerdo con el artículo 17 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014.

1.2 División en lotes del objeto del contrato

No se establecen lotes para este contrato tal y como ha quedado justificado en el expediente

1.3 Códigos de identificación del objeto del contrato

Codificación de la nomenclatura CPV-2008 correspondiente al objeto del contrato: 92600000-7 (Servicios deportivos).

2.- PROCEDIMIENTO DE SELECCIÓN Y ADJUDICACIÓN

La forma de adjudicación del contrato será el procedimiento abierto, en el que todo empresario interesado podrá

SINAc25829f4-9c06-4f33-98ef-dd3fec4bf610

betiere baztertuta geratzen da lizitatzaileekin kontratuaren baldintzak negoziatzeko aukera.

Esleipen-irizpide anitz erabiliz esleituko da kontratua, kalitate-prezio erlazio onena bilatzea oinarri hartuta, hamaikagarren klausulan zehazten denarekin bat etorriz.

presentar una proposición, quedando excluida toda negociación de los términos del contrato con los licitadores.

La adjudicación del contrato se realizará utilizando una pluralidad de criterios de adjudicación en base a la mejor relación calidad-precio de conformidad con lo que se establece en la cláusula undécima.

3.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA

Kontratu-jarduerari buruzko informazioaren gardentasuna eta hura herritarren esku egongo dela ziurtatzeko, udal honek kontratistaren profila ezarrita dauka Euskadiko kontratazio-plataforman, beste edozein publizitate-baliabide erabiltzeari kalterik egin gabe; profil horretan sartu ahal izango du interesdunak, honako web orri honetan araututako zehaztapenen arabera: www.asteasu.eus

3.- PERFIL DEL CONTRATANTE

Con el fin de asegurar la transparencia y el acceso público a la información relativa a su actividad contractual, y sin perjuicio de la utilización de otros medios de publicidad, este Ayuntamiento cuenta con el Perfil de Contratante alojado en la Plataforma de contratación de Euskadi al que se tendrá acceso según las especificaciones que se regulan en la página web siguiente: www.asteasu.eus

4.- LIZITAZIORAKO OINARRIZKO AURREKONTUA. LIZITAZIO MOTA

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua kalkulatzeko, zuzeneko eta zeharkako kostuak hartu dira kontuan, 9/2017 SPKLren 100.2 artikuluan ezarritakoaren arabera. Soldata-kostuak kalkulatzeko, 2023-2027 urteetarako Gipuzkoako Titulartasun Publikoko Kirol-Instalazioen hitzarmen kolektiboa (220002765012010 kodea) eta 2025erako bere Berrikuspena (2025/02/25eko GAO) aintzat hartu da.

4.- Presupuesto Base de Licitación. tipo de licitación

Para el cálculo del presupuesto base de licitación se han tenido en cuenta conforme a lo que establece el artículo 100.2 de la LCSP 9/2017, los costes directos e indirectos. Para el cálculo de los costes salariales se ha tomado en consideración el convenio colectivo del sector de Instalaciones Polideportivas de Titularidad Pública de Gipuzkoa para los años 2023-2027 (código 220002765012010), y la su revisión salarial para 2025 (BOG 25/02/2025).

Zerbitzuak jarraian eta unitateko prezioka emateko kontratu bat da.

Se trata de un contrato de prestación de servicios de forma sucesiva y por precio unitario.

Eskaintza ekonomikoen lizitazio-tipoa

El tipo de licitación sobre el que versarán

SINAc25829f4-9c06-4f33-98ef-dd3fec4bf610

zerbitzu-orduaren prezio unitarioari dagokio, eta honako hau da:

las ofertas económicas es relativo al precio unitario de la hora de servicio, que es el siguiente:

LANEGUNETAKO ORDUKO KOSTUAREN LABURPENA: Kirol-jarduerak zerbitzuak	
KONTZEPTUA	**ORDUKO PREZIOA**
Zuzeneko kostuak (88%)	37,09€
Zeharkako kostuak (6%)	2,53€
Mozkin industriala (6%)	2,53€
Guztira kostua BEZa gabe	42,15€
BEZ(%21)	8,85€
Guztira kostua BEZarekin	51,00€

RESUMEN COSTE HORA DIAS LABORABLES: Servicios de actividades deportivas	
CONCEPTO	**PRECIO HORA**
Costes directos (88%)	37,09€
Costes indirectos (6%)	2,53€
Beneficio industrial (6%)	2,53€
Total coste sin IVA	42,15€
IVA (21%)	8,85€
Total coste con IVA	51,00€

LANEGUNETAKO ORDUKO KOSTUAREN LABURPENA: kontrola, informazioa eta harrera zerbitzuak 2026	
KONTZEPTUA	**ORDUKO PREZIOA**
Zuzeneko kostuak (88%)	35,42€
Zeharkako kostuak (6%)	2,42€
Mozkin industriala (6%)	2,42€
Guztira kostua BEZa gabe	40,25€
BEZ(%21)	8,45€
Guztira kostua BEZarekin	48,70€

RESUMEN COSTE HORA DIAS LABORABLES: Servicios de control, información y atención	
CONCEPTO	**PRECIO HORA**
Costes directos (88%)	35,42€
Costes indirectos (6%)	2,42€
Beneficio industrial (6%)	2,42€
Total coste sin IVA	40,25€
IVA (21%)	8,45€
Total coste con IVA	48,70€

Enpresa lizitatzaileek zerbitzu-orduaren prezioa beherantz eskaini ahal izango dute, eta ez da onartuko lizitazio-preziotik gorako eskaintzarik.

Las empresas licitadoras podrán ofertar a la baja el precio de la hora de los servicios, no admitiéndose ofertas por encima del precio de licitación.

Ondorio guztietarako, eskaintzetan eta lizitazioa esleitzen zaion zenbatekoan adjudikaziodunak kontratua betetzeko egin behar dituen zuzeneko eta zeharkako gastu guztiak sartuta daudela ulertuko da, baita lan-bileretara joateko eta azalpenak emateko gastuak ere.

A todos los efectos se entenderá que en las ofertas y en la cifra que se le adjudique la licitación quedan incluidos todos los gastos directos e indirectos que la adjudicataria deba realizar para el cumplimiento del contrato, también los gastos de asistencia a reuniones de trabajo y explicativas.

Gehieneko aurrekontua gastuaren gehieneko muga gisa ezartzen da, baina

El presupuesto máximo se establece como límite máximo del gasto, pero no

SINAc25829f4-9c06-4f33-98ef-dd3fec4bf610

ez du Udala zerbitzu guztiak eskatzera lotzen, ezta kalkulatutako gehieneko unitate-kopuruaren arabera ere. Adjudikaziodun suertatzen den enpresak eskainitako unitate-prezioei soilik lotuko zaie Udala, eta kontratuaren indarraldian erabili ahal izango du, betiere, aurrekontuan jasotako gehieneko zenbatekoa.

vincula al ayuntamiento a solicitar la totalidad de los servicios, ni por el número máximo de unidades estimadas. El Ayuntamiento se vinculará exclusivamente a los precios unitarios ofertados por la empresa que resulte adjudicataria, pudiendo siempre disponer durante la vigencia del contrato del importe máximo total presupuestado.

Gastuaren gehieneko zenbateko zenbatetsia honako hau da:

El importe máximo estimado de gasto es el siguiente:

NAGUSIA	BEZ (%21)	GUZTIRA
72.916,69€	15.312,50€	88.229,19€

PRINCIPAL	IVA (21%)	TOTAL
72.916,69€	15.312,50€	88.229,19€

Kopuru horietan, zerbitzu ordu hauek estimatu dira:

- Kirol-jardueren teknikari zerbitzu-orduak: 1.151,25.
- Kontrola, informazioa eta harrera zerbitzu-orduak: 606.

En dicho importe se han estimado las siguientes horas de servicio:

- Horas de servicio técnicos de actividades deportivas: 1.151,25.
- Horas de servicio de control, información y atención: 606.

5. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Kontratuaren balio zenbatetsia, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 101. artikuluan ezarritakoaren arabera kalkulatuta, honako hau da:

5. VALOR ESTIMADO DEL CONTRATO

El valor estimado del contrato, calculado de acuerdo con lo establecido en el artículo 101 de la Ley de Contratos del Sector Público asciende al siguiente importe:

Gehieneko gastua kontratuak irauten duen **17 hilabeteetan** (BEZik gabe)	72.916,69€
Gehieneko gastua kontratuaren 2 **hilabeteetako luzapenak** (BEZik gabe)	12.152,78€
Aurreikusitako aldaketak, BEZ gabe (% 5)	3.645,83€
BALIO ZENBATETSIA	88.715,30€

Gasto máximo por los **17 meses** de duración del contrato (sin IVA)	72.916,69€
Gasto máximo por los **2 meses** de duración de las prórrogas del contrato (sin IVA)	12.152,78€
Modificaciones previstas en pliego, sin IVA (5%)	3.645,83€
VALOR ESTIMADO	88.715,30€

SINAc25829f4-9c06-4f33-98ef-dd3fec4bf610

6.- KREDITUA IZATEA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da udalaren aurrekontuko hurrengo kontu-sailean:

08 00 211 340 00 01

Era berean, aurrekontuen gaineko eskumena duen organoak konpromisoa hartu du etorkizunean beharrezkoak diren kredituak erreserbatzeko dagozkion ekitaldietako aurrekontuen barruan.

7.- PREZIOEN BERRIKUSPENA

Kontratu honetan, ez da preziorik berrikusiko.

8.- KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuak hamazazpi (17) hilabeteko iraupena izango du, 2026ko apirilaren 1etik aurrera eta 2027ko abuztuaren 31 arte. Kontratua bi (2) hilabetez luzatu ahal izango da. Kontratuak, bere osotasunean, gehienez ere hemeretzi (19) hilabeteko iraupena izango du (17+2).

Luzapena kontratazio organoak erabakiko du eta kontratugilearentzat nahitaezkoa izango da, betiere kontratuaren iraupen epea bukatu baino bi hilabete lehenagotik adierazten bada.

Nolanahi ere, luzapena berariaz adostu behar da.

Luzapenean ez dira ezertan aldatuko kontratuaren ezaugarriak, 2017ko SPKLren 203tik 207 artikuluetara ezarritakoaren arabera sar daitezkeen aldaketak alde batera utzi gabe.

6.- EXISTENCIA DE CRÉDITO

Para sufragar el precio del contrato hay prevista financiación con cargo a la partida siguiente de los presupuestos municipales:

08 00 211 340 00 01

Asimismo el órgano competente en materia presupuestaria se compromete a reservar los créditos oportunos en los presupuestos de los ejercicios futuros que resulten afectados.

7.- REVISIÓN DE PRECIOS

En el presente contrato no cabe la revisión de precios.

8.- DURACIÓN DEL CONTRATO

El plazo de duración del contrato será de diecisiete (17) meses, a contar desde la fecha de 1 de abril de 2026, y hasta el 31 de agosto de 2027, siendo susceptible de dos (2) meses de prórroga. El contrato, en su totalidad, tendrá una duración máxima de diecinueve meses (17+2).

La prórroga se acordará por el órgano de contratación y será obligatoria para el contratista, siempre que su preaviso se produzca al menos con dos meses de antelación a la finalización del plazo de duración del contrato.

En todo caso, la prórroga deberá ser acordada de forma expresa.

Durante el periodo de prórroga, las características del contrato permanecerán inalterables, sin perjuicio de las modificaciones que se puedan introducir de conformidad con lo establecido en los artículos 203 a 207 de

SINAc25829f4-9c06-4f33-98ef-dd3fec4bf610

la LCSP 2017.

Epe hori edo luzapena bukatu ondoren, kontratua automatikoki bukatuko da, eta adjudikaziodunak zerbitzua emateari utziko dio. Nolanahi ere, adjudikaizodunak zerbitzua ematen jarraitu beharko du baldin eta zerbitzu berria adjudikatzeko lizitazioa martxan jarri bada, eta harik eta adjudikaziodun berriak zerbitzua bere gain hartu arte. Bitarte horretan kontratuan aurreikusitako prestazioak jasoko ditu.

Transcurrido dicho plazo el contrato finalizará automáticamente y la adjudicataria dejará de prestar el servicio. No obstante, la adjudicataria deberá continuar prestando el servicio si se ha incoado la licitación para la adjudicación del nuevo servicio, y hasta que la nueva adjudicataria asuma el servicio. Durante ese plazo recibirá las prestaciones previstas en el contrato.

9.- KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko eta juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-prozedura honetan, baldin eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta tekniko edo profesionala badute, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legean, azaroaren 8koan, 71. artikuluan xedatutako kontratatzeko debekurik ez badute.

9.- CAPACIDAD Y SOLVENCIA PARA CONTRATAR

Podrán tomar parte en este procedimiento de contratación las personas naturales o jurídicas que se hallen en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, acrediten su solvencia económica, financiera y técnica o profesional y no estén incursas en ninguna de las prohibiciones para contratar establecidas en el artículo 71 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

Halaber, kontratistek beren kabuz edo baimendutako pertsona batek ordezkatuta parte har dezakete kontratazio-prozeduran, horretarako ahalorde bat emanez. Pertsona juridiko bat ordezkatuz haren kide batek parte hartzen badu, agiri bidez frogatu beharko du horretarako ahalmena duela. Kasu batean zein bestean, kontratatzeko aipatutako ezgaitasun-arrazoiek eragiten diote ordezkariari.

Asimismo, podrán hacerlo por sí o representadas por persona autorizada, mediante poder bastante otorgado al efecto. Cuando en representación de una persona jurídica concurra algún o alguna miembro de la misma, esa persona deberá justificar documentalmente que está facultada para ello. Tanto en uno como en otro caso, a la representante le afectan las citadas causas de incapacidad para contratar.

Gainera, kontratu honekin lotura zuzena duten jarduerak egitea izango dute xede pertsona juridiko horiek, eta, horiek ongi betetzeko, nahikoa elementu pertsonal

Además las personas jurídicas deberán tener como finalidad realizar actividades que tengan relación directa con el objeto del presente contrato y disponer

SINAc25829f4-9c06-4f33-98ef-dd3fec4bf610

eta material dauzkan antolakuntza izan behar dute.

de una organización dotada de elementos personales y materiales suficientes para la debida ejecución del mismo.

Kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena enpresa esleipendunak soilik egiaztatuko ditu, esleipena gauzatu aurretik eta horretarako ematen zaion epearen barnean; eta honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu (jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak).

La capacidad y solvencia para contratar se acreditará, solamente por la empresa adjudicataria, antes de la adjudicación y dentro del plazo que se le conceda para ello, con la presentación de los siguientes documentos (original o copia compulsada):

1.- Jarduteko gaitasuna:

1.- La capacidad de obrar:

a) **Pertsona juridikoak** diren enpresarien jarduteko gaitasuna honela egiaztatuko da: eraketako eskrituraren edo agiriaren bidez, estatutuen bidez edo sorrera-egintzaren berri ematen duen agiriaren bidez. Dena delako agiri horietan, adierazita egon behar du jarduerak zer arauren arabera arautzen diren, eta, gainera, pertsona juridiko horri dagokion erregistro publikoan inskribatuta egon behar dute.

a) De los empresarios que fueren **personas jurídicas** mediante la escritura o documento de constitución, los estatutos o el acto fundacional, en los que consten las normas por las que se regula su actividad, debidamente inscritos, en su caso, en el Registro público que corresponda, según el tipo de persona jurídica de que se trate.

b) **Pertsona fisikoak** diren enpresarien jarduteko gaitasuna honela egiaztatuko da: Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopiaren bidez, eta, dagokion epigrafean, Jarduera Ekonomikoen Zergan alta emanda dagoela adierazten duen ziurtagiriaren bidez.

b) De los empresarios que fueren **persona físicas** mediante fotocopia del Documento Nacional de Identidad y acreditación de estar dado de Alta en el Impuesto de Actividades Económicas en el epígrafe correspondiente.

c) **Espainiarrak ez diren Europar Batasuneko estatu kideetako enpresaburuek**, **edo Europako Eremu Ekonomikoari buruzko Ituna izenpetu duten estatuetako enpresaburuek,** bestalde, enpresa kokaturik duten estatuko legeetan ezarritako erregistroan izena emanda daudela erakusten duen agiria aurkeztu beharko dute jarduteko beren gaitasuna egiaztatzeko, edo arauetan ezarritako baldintzak betez eta

c) **De los empresarios no españoles que sean nacionales de Estados miembros de la Unión Europea o de Estados signatarios del Acuerdo sobre el Espacio Económico Europeo** se acreditará por su inscripción en el registro procedente de acuerdo con la legislación del Estado donde están establecidos, o mediante la presentación de una declaración jurada o un certificado, en los términos que se establezcan reglamentariamente, de

SINAc25829f4-9c06-4f33-98ef-dd3fec4bf610

aplikatzekoak diren erkidegoko xedapenekin bat etorriz, egiaztagiri bat edo zinpeko aitorpena aurkez dezakete.

acuerdo con las disposiciones comunitarias de aplicación.

d) **Atzerriko gainerako enpresariek** enpresaren helbideari dagokion Espainiako Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorrak edo kontsuletxeko bulegoak igorritako txostena aurkeztu beharko dute.

d) De los **demás empresarios extranjeros**, con informe de la Misión Diplomática Permanente de España en el Estado correspondiente o de la Oficina Consular en cuyo ámbito territorial radique el domicilio de la empresa.

e) Hainbat enpresari **enpresen aldi baterako elkarte** gisa aurkezten badira lizitaziora, partaide bakoitzak bere jarduteko gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, aurreko puntuetan adierazitakoaren ildotik; horrez gain, esleipendun izaten badira, **enpresen aldi baterako elkartea** osatuko dela adierazten duen konpromisoa ere aurkeztu beharko dute. Halaber, proposamenean azalduko dute elkarteko partaide bakoitzak xedearen zein parte egingo lukeen, bakoitzaren kaudimen-baldintzak frogatu ahal izateko.

e) En el caso de que varios empresarios o empresarias acudan a la licitación constituyendo **una Unión Temporal de Empresas**, cada una de las que la componen deberá acreditar su capacidad y su solvencia conforme a lo establecido en los puntos anteriores, y, asimismo, aportar el compromiso de constituirse formalmente en UTE en caso de resultar adjudicatarios. Igualmente, indicarán en la proposición la parte del objeto **que cada miembro de la UTE realizaría**, con el fin de determinar y comprobar los requisitos de solvencia de todos ellos y ellos y ellas.

2.- Erantzukizunpeko berariazko adierazpena, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, 71. artikuluan kontratatzeko zehazten dituen debekuetako bat bera ere ez duela adierazten duena.

2.- Declaración expresa responsable de no estar incurso en ninguna de las prohibiciones de contratar enumeradas en el artículo 71 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

3.- Indarreko xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen direla adierazten duten ziurtagiriak.

3.- Certificados de hallarse al corriente del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes.

4.- Kaudimena:

4.- La solvencia:

4.1.- <u>Ekonomia- eta finantza-kaudimena</u> egiaztatzeko, lizitatzaileak kontratuaren eremuan duen urteko negozio-bolumena aurkeztu beharko da, eskuragarri dauden azken hiru ekitaldietako onenari

4.1.- <u>La solvencia económica y financiera</u> se acreditará mediante la presentación del volumen anual de negocios de la licitadora en el ámbito al que se refiere el contrato, referido al mejor ejercicio

SINAc25829f4-9c06-4f33-98ef-dd3fec4bf610

dagokiona, enpresaburuaren eratze-dataren edo jardueren hasiera-dataren arabera, eta eskaintzak aurkeztearen arabera, 133.072,95 eurokoa edo hortik gorakoa.

dentro de los tres últimos disponibles en función de las fechas de constitución o de inicio de actividades del empresario y de presentación de las ofertas por importe igual o superior a 133.072,95 euros.

Lizitatzailearen edo hautagaiaren urteko negozio-bolumena onartutako eta Merkataritza Erregistroan erregistratutako urteko kontuen bidez egiaztatuko da, enpresaria erregistro horretan inskribatuta badago; eta, hala ez bada, inskribatuta egon behar duen Erregistro Ofizialean erregistratutakoen bidez. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresariek, beren urteko negozio-bolumena egiaztatzeko, inbentario-liburuak eta urteko kontuak aurkeztu behar dituzte, Merkataritza Erregistroak legeztatuta.

El volumen anual de negocios de la licitadora o candidata se acreditará por medio de sus cuentas anuales aprobadas y depositadas en el Registro Mercantil, si la persona empresaria estuviera inscrita en dicho Registro, y en caso contrario por las depositadas en el Registro Oficial en que deba estar inscrita. Los empresarios individuales no inscritos en el Registro Mercantil acreditarán su volumen anual de negocios mediante sus libros de inventarios y cuentas anuales legalizados por el Registro Mercantil.

4.2.- Kaudimen teknikoa, berriz, honela egiaztatuko da: azken 3 urteetan egindako kontratuaren xedearen izaera bereko edo antzeko izaera duten zerbitzu nagusien zerrenda, horien zenbatekoa, datak eta hartzailea (publikoa edo pribatua) adierazita. Hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean, organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira egindako zerbitzuak edo lanak; hartzailea subjektu pribatua denean, berriz, subjektu pribatuak emandako ziurtagiri baten bidez edo, ziurtagiririk ezean, enpresa-pertsonaren edo –erakundearen erantzukizunpeko adierazpen baten bidez. Enpresaburuak edo enpresak egiaztatu beharko du azken 3 urteetan kontratu honen xede diren izaera bereko edo antzeko zerbitzuak egin dituela, 40.833,35 eurokoak edo gehiagokoak.

4.2.- La solvencia técnica se acreditará mediante la relación de los principales servicios de igual o similar naturaleza que los que constituyen el objeto del contrato, realizados en los últimos 3 años que incluya importe, fechas y el destinatario, público o privado, de los mismos. Los servicios o trabajos efectuados se acreditarán mediante certificados expedidos o visados por el órgano competente, cuando el destinatario sea una entidad del sector público; cuando el destinatario sea un sujeto privado, mediante un certificado expedido por éste o, a falta d este certificado, mediante una declaración responsable de la persona o entidad empresarial. La persona empresaria o empresa deberá acreditar la realización de servicios de igual o similar naturaleza a los que constituyen el objeto del presente contrato durante el curso de los últimos 3 años por importe igual o superior a 40.833,35 euros

SINAc25829f4-9c06-4f33-98ef-dd3fec4bf610

5.- **Sektore Publikoan Sailkatutako Lizitatzaile eta Enpresen Erregistro Ofizialean** inskribatuta egoteak, han adierazten denaren arabera eta kontrako frogak daudenean salbu, enpresaren gaitasun-baldintzak egiaztatuko ditu, haren nortasun eta jarduteko gaitasunari, ordezkaritzari, lanbide- edo enpresa-gaikuntzari, kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionalari, sailkapenari eta han inskribatutako gainerako inguruabar guztiei dagokienez; halaber, kontratatzeko debekuak betetzen diren edo ez ere agerian jarriko du, hor jasota agertuko direnez.

5.- **La inscripción en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público** acreditará a tenor de lo en él reflejado y salvo prueba en contrario, las condiciones de aptitud del empresario en cuanto a su personalidad y capacidad de obrar, representación, habilitación profesional o empresarial, solvencia económica y financiera y técnica o profesional, clasificación y demás circunstancias inscritas, así como la concurrencia o no concurrencia de las prohibiciones de contratar que deban constar en el mismo.

6.- Bitartekoen atxikipena.

Lizitatzaileek, estatukoek nahiz atzerrikoek, beren kaudimena edota, hala dagokionean, sailkapena egiaztatzeaz gain, (Baldintza Teknikoen Agirietan jasotakoak gain) segidan adierazitako bitartekoen (giza baliabideak eta kudeaketak) atxikipena egin behar dute nahitaez, kaudimen-irizpide gisa, kontratu hau gauzatu ahal izateko. Horretarako, dagozkien egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzte, bai eta kasu bakoitzean eskatzen diren hizkuntza-eskakizunak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak ere.

6.- Adscripción de medios.

Las partes licitadoras, nacionales y extranjeras, además de acreditar su solvencia o, en su caso clasificación, deberán adscribir obligatoriamente para la ejecución de este contrato, como criterio de solvencia, los medios humanos y de gestión dispuestos (además de en el Pliego de Prescripciones Técnicas) seguidamente, debiendo presentar para ellos los correspondientes títulos acreditativos, certificados así como la acreditación del cumplimiento de los perfiles lingüísticos exigidos en cada caso.

A) Giza baliabideak:

- **Langileen profila** ondorengoa izango da:

  - Zerbitzuaren koordinatzailea:

    Enpresek frogatu beharko dute titulazio hauek duen koordinatzaile bat edo arduradun bat zeregin horretara bideratuko duela: "Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua" edo

A) Medios personales:

- **El perfil del personal** será el siguiente:

  - Persona coordinadora del servicio:

    Las empresas deberán acreditar que disponen de un o una coordinadora o responsable con formación de "Grado en ciencias de la actividad física y el deporte" o equivalente o "Licenciatura en

SINAc25829f4-9c06-4f33-98ef-dd3fec4bf610

"Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Lizentziatura"; eta Hizkuntza gaitasun mailari dagokionez, Hizkuntzen Marko Europarreko Euskarako C1 maila edo baliokidea egiaztatzen duen agiria, edo bestela zinpeko aitorpen bat, kontratu honen esleipenaren aurretik aurkeztuko dela esanez, esleipenduna izatekotan.	Ciencias de la Actividad Física y del Deporte", y que acredite el nivel correspondiente de competencia lingüística para desempeñar sus funciones para lo cual deberá aportarse en todo caso, o bien documento que acredite Nivel C1 de Euskera del Marco Europeo de Lenguas o equivalente, o bien declaración jurada de la empresa de que tal documento va a ser presentado antes de la adjudicación del contrato, de resultar adjudicatario.
Langileek ez dute inolako lan harremanik izango Asteasuko Udalarekin	Los trabajadores no tendrán vinculación laboral alguna con el Ayuntamiento de Asteasu.

Bitarteko pertsonal horiek lizitatzaileek aurkeztutako proposamenaren parte izen behar dute, eta, beraz, baita esleipendunarekin sinatuko den kontratuaren parte ere. Horregatik, zerbitzu hau ematen duen denboraldi guztian zehar eutsi beharko die bitarteko horiei enpresak. Horietan aldaketarik egiten bada, administrazio honi jakinarazi behar zaio. Betebehar hor betetzen ez bada, kontratua suntsiarazteko edo zigorrak ezartzeko arrazoitzat hartuko da, 30. klausularekin bat etorrita.

Estos medios personales formarán parte de la propuesta presentada por las partes licitadoras y, por lo tanto, del contrato que se firme con la parte adjudicataria. Por este motivo, deberán ser mantenidos por la empresa adjudicataria durante todo el tiempo de realización de este servicio. Cualquier variación respecto a ellos deberá ser comunicada a esta Administración. Su incumplimiento podrá ser causa de resolución del contrato o de imposición de penalidades de acuerdo con la cláusula 30.

10.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA

10.- PRESENTACIÓN DE PROPOSICIONES

10.1- Aurretiko baldintzak

10.1- Condiciones previas

Lizitazioa arautzen duten baldintzetara eta dokumentaziora egokitu behar dute interesdunen proposamenek, eta proposamen horiek aurkezteak adierazten du enpresaburuak, baldintzarik gabe, klausula edo baldintza horien guztien edukia onartzen duela, salbuespenik eta erreparorik gabe.

Las proposiciones de los interesados deberán ajustarse a los pliegos y documentación que rigen la licitación, y su presentación supone la aceptación incondicionada por el empresario del contenido de la totalidad de sus cláusulas o condiciones, sin salvedad o reserva alguna.

SINAc25829f4-9c06-4f33-98ef-dd3fec4bf610

Erakunde lizitatzaile bakoitzak ezin ditu aurkeztu proposamen bat baino gehiago, eta ezin du beste norbaitekin aldi baterako elkartuta beste proposamenik egin ere, baldin eta banaka egin badu, edo aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan agertzen bada. Arau horiek hautsiz gero, ez da onartuko haren proposamen bakar bat ere.

Cada entidad licitadora no podrá presentar más de una proposición, ni suscribir ninguna propuesta en unión temporal con otros si lo ha hecho individualmente o figurar en más de una unión temporal. La infracción de estas normas dará lugar a la no admisión de todas las propuestas por él suscritas.

10.2- Eskaintzak aurkezteko lekua eta epea

Lizitazioa bitarteko elektronikoen bitartez izapidetuko da. Lizitatzaileek ezinbestean bitarteko elektronikoak erabiliz prestatu eta aurkeztu behar dituzte euren eskaintzak Lizitazio Elektronikorako Plataformaren bidez:

www.contratacion.euskadi.eus

Horrek esan nahi du:

- Lizitatzaileak modu telematikoan prestatu eta aurkeztu behar dituela bere eskaintzak.
- Sistemak egingo duela eskaintzen zaintza elektronikoa.
- Plataformaren bitartez irekiko eta ebaluatuko dela dokumentazioa.

Proposamenak **hamabost egun naturaleko epean** aurkeztuko dira, lizitazioaren iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Elektronikoki bakarrik egin ahal izango da, horretarako hautagaien eta entitate lizitatzaileen eskura jartzen den www.contratacion.euskadi.eus lizitazio elektronikorako plataforma erabili beharko da, eskaintzak prestatu eta aurkezteko erreminta, hain zuzen.

10.2- Lugar y plazo de presentación de ofertas

La presente licitación tiene carácter electrónico. Las entidades licitadoras deberán preparar y presentar sus ofertas obligatoriamente de forma electrónica a través de la herramienta de preparación y presentación de ofertas de la plataforma de licitación electrónica www.contratacion.euskadi.eus

La utilización de estos servicios supone:

- La preparación y presentación de ofertas de forma telemática por el licitador.
- La custodia electrónica de ofertas por el sistema.
- La apertura y evaluación de la documentación a través de la plataforma.

Las proposiciones, junto con la documentación preceptiva se presentarán en el **plazo de quince días naturales**, contados desde el día siguientes al de publicación del anuncio de licitación del contrato en el perfil de contratante, exclusivamente de forma electrónica a través de la Herramienta de Preparación y Presentación de ofertas que la Plataforma de licitación electrónica www.contratacion.euskadi.eus pone a

SINAc25829f4-9c06-4f33-98ef-dd3fec4bf610

disposición de candidatos y entidades licitadoras para tal fin.

Arrazoi hori dela eta, lizitazio honetan parte hartu ahal izateko, garrantzitsua da interesatuta dauden lizitatzaileak, goian aipatutako plataforman erregistratzea (erregistratu gabe dauden kasuetan)

Por este motivo, para participar en esta licitación, es importante que los licitadores interesados se registren, en el supuesto de que no lo estén, en la Plataforma arriba referenciada.

Dokumentazioa, jakinarazpenak eta komunikazioak Agiri honen **I. Eranskinean** jasotakoaren arabera bidaliko dira.

La oferta electrónica y cualquier otro documento que la acompañe deberán ajustarse a lo establecido en el **Anexo I** de este pliego.

Proposamenak sekretuak izango dira eta horretarako, izaera hori bermatuko duten bitartekoak erabiliko dira lizitazio publikoa egin arte.

Para garantizar la confidencialidad del contenido de las ofertas hasta el momento de su apertura, la herramienta cifrará los archivos en el envío.

10.3.- Lizitatzaileei zuzendutako informazioa

10.3.- Información a los licitadores

Zerbitzu Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 138. artikuluan aipatzen den informazio gehigarria edo osagarria eskatu behar denean, eskaintzak aurkezteko zehaztutako epea amaitu baino gutxienez sei egun lehenago egin beharko du hori administrazio kontratatzaileak, betiere, data hura baino gutxienez hamabi egun lehenago aurkeztu bada eskaria. Eskari hori lizitazioaren iragarpenean zehaztutako fax zenbakira edo helbide elektronikora egingo da.

Cuando sea preciso solicitar la información adicional o complementaria a que se refiere el artículo 138 de la LCSP, la Administración contratante deberá facilitarla, al menos, seis días antes de que finalice el plazo fijado para la presentación de ofertas, siempre que dicha petición se presente con una antelación mínima de doce días respecto de aquella fecha. Dicha solicitud se efectuará al número de fax o a la dirección de correo electrónico previsto en el anuncio de licitación.

10.4.- Proposamenen edukia

10.4.- Contenido de las proposiciones

Lizitazioan parte hartzeko proposamenak hiru artxibo elektronikotan (A, B eta C) aurkeztuko dira, guztiak ere lizitatzaileak sinatuak. Artxibo elektronikoetan adieraziko da artxiboaren izendapena eta legenda hau: "**PROPOSAMENA, Asteasuko Usarrabi kiroldegian kirol zerbitzuak, informazio eta harrera**

Las proposiciones para tomar parte en la licitación se presentarán en tres archivos electrónicos (A, B y C), firmados por la licitadora, en los que se hará constar la denominación del archivo electrónico y la leyenda **"PROPOSICIÓN PARA LICITAR A LA CONTRATACIÓN diversos servicios deportivos y servicio de información y**

SINAc25829f4-9c06-4f33-98ef-dd3fec4bf610

zerbitzuaren KONTRATAZIOAN LIZITATZEKO". Artxibo elektronikoen izenak hauek dira:

- «A» *artxibo elektronikoa*: Administrazio-agiriak.
- «B» *artxibo elektronikoa:* Balio-judizioaren arabera haztatu beharreko agiriak.
- «C» *artxibo elektronikoa:* Proposamen ekonomikoa eta automatikoki kuantifika daitezkeen agiriak.

Artxibo elektroniko bakoitzean sartu behar diren agiriek originalak edo kautotutako kopiak izan behar dute, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Artxibo bakoitzean agiri hauek sartu behar dira, zenbakiz zerrendatuta:

"A" artxibo elektronikoaren azpititulua "ADMINISTRAZIO-AGIRIAK" izango da, eta dokumentu hauek izango ditu barruan:

a) Lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, administrazioarekin kontratatzeko legez ezarriko baldintzak betetzen dituela adierazten duena.

Erantzukizunpeko adierazpena Europako Kontratazio Agiri Bakarraren (EKAB) arabera aurkeztuko da.

EKAB formulario normalizatua eskuragarri dago era elektronikoan betetzeko web-orri honetan:

atención al público en el polideportivo Usarrabi de Asteasu". La denominación de los archivos es la siguiente:

— Archivo electrónico «A»: Documentación Administrativa.
— Archivo electrónico «B»: Documentación cuya Ponderación Depende de un Juicio de Valor.
— Archivo electrónico «C»: Proposición Económica y Documentación Cuantificable de Forma Automática.

Los documentos a incluir en cada archivo deberán ser originales o copias autentificadas, conforme a la Legislación en vigor.

Dentro de cada archivo, se incluirán los siguientes documentos así como una relación numerada de los mismos:

El archivo electrónico "A" se subtitulará "DOCUMENTACIÓN ADMINISTRATIVA" y contendrá los siguientes documentos:

a) Declaración Responsable de la parte licitadora indicativa del cumplimiento de las condiciones establecidas legalmente para contratar con la Administración.

La declaración responsable se presentará conforme al Documento Europeo único de Contratación (DEUC).

El formulario normalizado del DEUC está disponible para ser rellenado electrónicamente en la siguiente dirección web:

- https://visor.registrodelicitadores.gob.es/espd-web/filter?lang=es

*ALDI BATERAKO ENPRESA ELKARTEAK * UNIÓN TEMPORAL DE EMPRESAS

SINAc25829f4-9c06-4f33-98ef-dd3fec4bf610

Enpresa bat baino gehiago lehiatzen badira aldi baterako enpresa-elkartea eratuz, elkartea osatzen duen enpresa bakoitzak egiaztatu beharko du bere nortasuna, gaitasuna eta kaudimena, eta bakoitzak aurkeztu beharko du erantzukizunpeko adierazpena.

Aurreko paragrafoan aipatutako adierazpen horren edo horien osagarri gisa, aldi baterako elkartearen parte diren enpresen konpromiso bat aurkeztuko da. Hor adieraziko dute Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 69. artikuluaren 3 atalean eskatutakoaren arabera egingo dela aldi baterako elkartea.

Si varias empresas concurren constituyendo una unión temporal, cada una de las que la componen deberá acreditar su personalidad, capacidad y solvencia, debiendo todas y cada una presentar la correspondiente declaración responsable.

Adicionalmente a la declaración o declaraciones a que se refiere el párrafo anterior se aportará el compromiso de constituir la unión temporal por parte de los empresarios que sean parte de la misma de conformidad con lo exigido en el apartado 3 del artículo 69 de la LCSP.

*ATZERRIKO ENPRESAK

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 67 eta 68 artikuluek aurreikusitako moduan egiaztatu beharko dute atzerriko enpresek beren gaitasuna. Erantzukizunpeko adierazpenaz gain, atzerriko enpresek kontratuarekin zuzenean edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako Espainiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla adierazten duen agiria aurkeztuko dute, eta uko egingo diotela, hala behar badute, enpresa lizitatzaileei legokiekeen atzerriko jurisdikzio foruari.

*EMPRESAS EXTRANJERAS

Las empresas extranjeras deberán acreditar su capacidad en la forma prevista en los artículos 67 y 68 de la LCSP. Además de la declaración responsable, deberán aportar una declaración de sometimiento a la jurisdicción de los juzgados o tribunales españoles de cualquier orden, para todas las incidencias que de modo directo o indirecto pudieran surgir del contrato con renuncia, en su caso, al fuero jurisdiccional extranjero que pudiera corresponder a la empresa licitante.

"B" artxibo elektronikoaren azpititulua hauxe izango da: "BALIO-IRITZIEN BIDEZ AZTERTUKO DEN DOKUMENTAZIOA", eta balio-iritzi baten mende dauden irizpideen balioespenerako beharrezkoak diren agiriak izango ditu (esleipen-irizpideetako B.1).

El archivo electrónico "B" se subtitulará "DOCUMENTACIÓN CUYA PONDERACIÓN DEPENDE DE UN JUICIO DE VALOR" y contendrá los documentos que sean precisos para la valoración de los criterios que dependan de un juicio de valor. (B.1 de los criterios de adjudicación).

a) Proposamen Teknikoa.

a) Propuesta técnica.

"C" artxibo elektronikoaren azpititulua hauxe izango da: "PROPOSAMEN EKONOMIKOA ETA AUTOMATIKOKI

El archivo electrónico "C" se subtitulará "PROPOSICIÓN ECONÓMICA Y DOCUMENTACIÓN CUANTIFICABLE DE

SINAc25829f4-9c06-4f33-98ef-dd3fec4bf610

KUANTIFIKA DAITEZKEEN AGIRIAK" (esleipen-irizpideetako A.1 eta A.2); eta honako agiri hauek bilduko ditu:

a) Eskaintza ekonomikoa eta hobekuntzak: III. ERANSKINEAN datorren ereduaren arabera osatutako adierazpena.

Lizitatzaileak, esleipena jasoz gero, kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa zein den adierazi beharko du apirilaren 7ko 3/2016 Legearen 5.2 artikuluak eskatu legez – zenbait klausula sozial kontratazio publikoan sartzeko Legea, EHAAn 2015eko apirilaren 15ean 71. zkian argitaratua - .

b) Kontratu honen xedea dela-eta egin behar diren lanei buruzko **AZTERKETA EKONOMIKO-FINANTZARIO XEHATUA** aurkeztu beharko da. Bertan, atal desberdinei buruzko gastuak jaso beharko dira. Horiek horrela egin behar diren lanei buruzko urteko aurrekontua aurkeztu beharko da, zerbitzu bakoitzaren arabera banakatua, gutxienez ondoko kontzeptuak zehazturik:

- Zerbitzuka.
- Langileen kostu unitarioak laneguneko.
- Langileen kostuak guztira (€ / urte), soldatak, gizarte-aseguruak, ordezkapenak eta abar barne.
- Beste kostu batzuk: jantziak, beste batzuk.
- Zerbitzuaren prezioa pertsona eta ordu bakoitzeko.

FORMA AUTOMÁTICA" (A.1 y A.2 de los criterios de adjudicación) y contendrá los siguientes documentos:

a) Oferta económica y mejoras: Declaración ajustada al modelo que se adjunta en el ANEXO III.

